

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

**DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTE**ASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Landa Garapeneko Departamentuak online konektatu ditu nekazariak eta elikagaien industria

Webgune bati esker, nekazaritza eta industriako enpresen eskariaren berri izango dute ureztatzaileek

Miércoles, 22 de junio de 2011

Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak abian jarri du online zerbitzu bat eta, horren bidez, ureztatzaileek nekazaritza eta industriako enpresen labore eskarien berri izango dute. Zerbitzu hori [Riegos de Navarra S.A.](#) sozietate publikoaren webgunean eskaintzen dute. Zerbitzu berriak bi norabideko informazioa ematen du, bai ureztatzaileentzat, nekazaritza eta industriako enpresek eskatzen dituzten laboreen inguruan, bai enpresa horientzat, urezta daitezkeen gunetan dauden laboreei buruz.

Bitarteko horren bidez, helburua nekazaritzaren sektorearen eta industriaren arteko itunak ezartzea da, Nafarroako garapen ekonomikoaren eredu berrian (MODERNA) ezarritakoarekin bat etorritz.

[Nekazaritza eta industriako eskaintza zerbitzuko](#) atal berrian, nekazaritza eta industria enpresek osaturiko informazioa azaltzen da erabiltzaileentzat modu erraz eta azkarrean. Une honetan, webgunean azaltzen den informazioa 10 enpresatako (Abencis, Alfalfa Osés, Cidacos, Congelados de Navarra, Endinava, Forrajes de Ribaforada, Gelagri, Opossa, SAT Dosmil eta SAT Marchite) laboreei buruzkoa da, baina asmoa zerbitzua operatiboa eta erabilgarria dela uste duten enpresa guztiak gehitzea da.

Informazioa bi leihoren bidez eskura daiteke: *Por agroindustrias* (nekazaritza eta industriako enpresen arabera) eta *Por cultivos* dioen lekuan sakatuta (laboreen arabera). Lehenengoan, enpresen zerrenda bat agertzen da eta horietako bakoitzak nekazariari eskatu beharreko laboreen zerrenda eskaintzen du; labore bakoitzean hauei buruzko informazioa duen fitxa bat deskargatu daiteke:

- Harremanetarako datuak: teknikariaren izena, telefonoa, emaila
- Partzela aukeratzeko irizpideak: ekintza erradioa enpresatik, beharrezko txandatzea, aurreko labore egokiak eta kaltegarriak, beharrezko partzela jartzeko gutxieneko azalera, lurzoru mota eta malda
- Ureztatzea: ureztatze sistema egokia eta uraren kontsumoa
- Kontratuaren baldintzak: prezioak, kontratu motak eta kontratua adosten duten aldean eskubideak eta betebeharrak
- Azaleraren aurreikuspena urteko

- Ereiteko eta uztatzeko egunak
- Oharrak

Por Cultivos leihoaren bidez nekazaritza eta industriako enpresek gaur egun eskatzen dituzten laboreen zerrenda ikus daiteke eta, horietako bakoitzean, labore horiek eskatzen dituzten enpresen zerrenda eta kasuan kasuko datuen fitxarako esteka azaltzen da